

EUSKALHERRIAK ALDAKETA SOZIALA!

Ekonomia ez da pertsonen eskubideak eta herrien beharrak asetzeko antolatzen. Aitzitik, pertsonak eta herriak ekonomia izenean sakrifikatu egiten dira globalizatutako kapitalismoaren aldrean. Bakan batzuk herrialde osoen adinako ondasunak dituzten bitartean, mundua 950 milioi lagun gosez bizi dira eta urtero 6 milioi hil egiten dira elikadura txarraren ondorioz bost urte bete aurretik. Egun nagusi den sistema ekonomikoaren injustizia basatia agerian uzten duen datu ugarietako bat da hau. Gure herrian ere sistema honek eragindako ezberdintasunak antzeman daitezke. Azken hamarkadan ekoizpena nabarmen hazi da, baina sortutako aberastasuna ez da herritarren bizi-baldintzen hobekuntzan gauzatu, aurkakoa baizik. Enpresa eta banketxeek alimaleko etekinak argitaratzen zituzten bitartean...

Soldatek pisua galdu dute, prekarietatea hedatu da eta lan-istripuak kroniko bilakatu dira. (100 pertsona baino gehiago hiltzen dira urtero Euskal Herrian lan-istripuetan).

Emakumeek eta aukera sexual jakinek, batez ere transesexualak, pairatzen duten zampaketa sexual, ekonomiko eta sozialean sakontzen jarraitzen da.

Ez zaio jendartean sektorerik prekarizatuenean (gazteek, pentsiodunek, hainbat migratzaile kolektibok...).

Etxebizitza duina izateko eskubidea urratu da (125.000 pertsonak ez dute etxebizitza baterako sarrerarik, 250.000 etxebizitza erabilpenik gabe dauden bitartean. 44 baino urte gutxiago duten pertsonen ia % 50a euren gurasoen etxean bizitzen jarraitzen dute bizitza-proiektu independentea eratzeko aukerarik gabe).

Milaka baserri, arrantzuntzi, saltoki txiki eta garraiolari autonomo desagertu dira.

Zerbitzu publikoak pribatizatu eta irakaskuntza merkantilizatu da.

Gure lurraldeko milaka hektarea porlanez bete dira, Euskal Herriaren biziraupen fisiko bera arriskuan jarriz (Gure aztarna ekologikoa jasan dezakeguna baino hirukoitza da).

Krisialdian egoera hau areagotzen ari da, elite politiko-ekonomikoen arteko akordioak aberastasuna esku gutxitan jartzen dituen neurriak martxan jartzen jarraitzen du; bitartean, gero eta gizarte sektore gehiago dira euren bizitzak prekarizatuak ikusten dituztenak. Hain zuzen ere, Estatu Batuek eta Europa Batasunak diktatutako "krisiaren aurkako" neurri horiek, Parisek eta Madrilek inposatzen dizkigutenak Gasteizeko eta Iruñeko Gobernuek lagunduta, kapitalisten etekin tasa berreskuratzeko zuzenduta daude, eredu heteropatriarkala indartuz. Honek esan nahi du gizarte sektoreek euren etekinen berrezarpena ordaindu behar dugula hauen bidez:

- Kaleratzeak eta enplegua erregulatzeko espedienteak (EEE) (ia 80.000 langile EEEren bat pairatu dute 2009. urte honetan eta ia 167.000 pertsona langabeziak daude), soldata murrizketak, lan-merkatu erregulatuaren eta merkatu murgilduaren lanaren esplotazioaren areagotzea.
- Dirudunei zergak murrizten edota ezabatzen dizkieten erreforma fiskalak (Soziedadenn gainekoa eta Ondarekoa) eta langile klaseari igotzen dizkigute (BEZ...).
- Diru publikoaren desbideratzea banketxe eta enpresarien mesedetan, izaera sozialeko gastu publikoa murrizten den bitartean.
- Porlanaren politikari bultzara berria, eraikuntza-enpresak kontent izateko.
- Une honetan ikus dezakegu Udaletxeek, Diputazioek eta Parlamentuek, gizartearen nahia kontuan hartu gabe, aurrekontuak prestatzen ari direla eta izaera sozialeko gastu publikoaren murrizketa iragartzen dutela.

Azken finean, oraingo eredu ekonomikoa eskoratzean datza gure lana, lan banaketan (sexualean eta sozialean) y bere diru-sisteman oinarritzen dena. Lan honetan elite politiko-ekonomikoen akordioak komunikabide handien laguntza du, egoera ezkatuzten dutenak eta instituzioetatik datozen ondasun orokorraren izeneko errezetak saltzen dizkigutenak. Halere, badakigu oraingo instituzioetatik, gaur egun egituratuta dauden moduan, ez zaizkigula konponbideak etorriko; ez dute nahi, ezta ezin ere. Ekonomia erabakiak hartzerako orduan gauzak aldatzea planteatzen duten agenteen partehartzea erditik kendu nahi dituzte. Elkarrizketa soziala, euskal gehiengo sindikala alde batera utzita, edo kontu publikoen proposamenak, agente sozialak kontuan hartu barik... Agintzen gaituen klase politikoaren lanaren adibide onak dira. Horregatik, guk: langileok, langabeok, gazteok, emakumeok, disidente sexualok, nekazariok eta arrantzaleok, pentsiodunok, migratzaileok, ekologistok, gabezi pertsonok, pertsona autonomo dependenteok, ikasleok... Espekulatzaile diru-goseek sortutako krisia ordaintzeari uko egiten diogu. Ez gara geldituko beso-gurutzaririk "Kapitalismoaren berrezarpen" honen aurrean, are gehiago, bestelako eredu ekonomiko eta sozial batengatik apustu egiten dugu eta ez Kapitalismo heteropatriarkal honengatik. Zer aldarrikatzen dugu:

- Lan produktibo nahiz berproduktiboaren banaketa.
- Aberastasunaren banaketa.
- Ekonomia demokratizazioa.
- Ekosistemaren garapen demokratikoa.

Hauk dira benetak krisitik behingoz eta betiko irteteko egitura-neurrietako batzuk, sistema kapitalistak eratzen dituena. Eta hauk eztabaidatzeko eta aurrera eramateko, erabakitze gaitasuna behar dugu. Horrela, subiranotasuna eskatzen dugu bestelako Euskal Herria eraikitze eta bestelako Mundu bat eraikitze ekarpena egiteko. Beharrezkoa eta posiblea da.

GOGORATU:

GASTEIZ: ABENDUAK 15 19:30etan HITZALDIA (NEKANE JURADO) JUDIMENDIKO AUZO ELKARTEAN

GASTEIZ: ABENDUAK 19 12:00etan MOBILIZAZIOA KORREOS PLAZATIK

BILBO: ABENDUAK 19 12:00etan MOBILIZAZIOA PLAZA ZIRKULARREAN

DONOSTIA: ABENDUAK 19 12:30etan MOBILIZAZIOA BOULEVARD

IRUÑA: ABENDUAK 19 12:00etan MOBILIZAZIOA DOCTOR UHARTE 3 KALEAN; C.E.N PAREAN



Herri hau alian jarri da

Aldaketa soziala gure esku dago